

Ama dot mosutu gozo ta samurki...
Ene biotz-dardar! Aren matrail gori!

Ta eder-min gose, tokiz naz aldatu,
urrun aizeak daust bularra gaintitu.

Gerora, oi! sarri loratze guriak
ikusi ditue nire begi biak.

Ames ta sorgin-poz, aur-jolas ta atsegin,
uriak ditzikor, zerupeak urdin.

Txokoa, alan ta be, nik maite gortsuki,
ta bertan zu, ama, dirdaizko eguzki.

Enarak ba-datoz eltzean beroa,
alan oroimena doakit zoroa.

Urtez zerbait ule zuritua zara,
matraillak zimeldu, mao bi antzera,

Ezilkortzat etsi arren, oi amatxo!
ez gara lurrean iñolaz betiko.

* * *

Bein izpar baltza: zure eriokoa.
Osoz lauski eustan biotz-azpikoa.

Nik ez nai siñistu; baiña, alan be, egia:
juztiz yat itzali beko eguzkia.

Malko ixuri nozu il-obi ertzean,
zure ixil aundia barrendu naiean.

Ta gaurtik aurrera, nire illun nasi!
Algo dot osoan neuregandik jaurti?

Baiña... bego izpitsu itxaro zuzia,
zuk or urdiñetik niri bidalia.

Zurekin, nik bere, atsedean aldia
noizbait dot jzango, izarrez jantzia.

BIRIGARROA

Jaio-barri zan oindiño;
baiña goiz baten, ibilki,
bere abia lagarik
egoak jo bipilki
ta aritz baten gurenean,
muturrengo adarrean
ezarri zan egoki.

Txio ozena goitik lenen,
mendia gero ixillik;
txiruliru bat ondoan,
ba-zan txorrotxiorik:
neguz aizeak ez eban
arte osto zirkuetan
egin oi ots oberik.

Eztarriaren zolia,
trebe, samur osoan!
Ormea lez arritua
berbera bai egoan,
[xii egokon karnaba,
ixillik baita gallupa,
ari entzun gogoan.

Ontan birigarroari
jparraren durundu,
gau izartuarcn arnasa,
goiz-soiñu, zugatz ulu,

inguruan baturiko
zarrast oro eztarrian
biurtu yakon kantu.

Onenbestez ixildu zan,
ta mendiak oindiño
doiñuaren ots luzean
«kantari eder!» diño.
Ordun, kantua zer zanik
ez ekin txauak, zatarrrik:
—Bai motza, orraitino!

Ez eban ezertxo esan
karnaba kantariak,
ezta eritxirik emon
gallupa zusmariak,
zur egiñik bai egozen
aren soiñuak entzuten
txintari bikain biak.

* * *

Aitzen dauanak goretsi
bear dauz baliosak,
euren garrasiz bestela
balio ez dabenak
mundu-jaun yakuz egingo:
ba-dabe zerbait olango
gaur euskal idazleak.

M I K A K

Uts-arteak beiñola
izan eben mikak;
asarratu zirean
eta utikan kantak.

Abi barru sarturik
luzaro ez eben,
euren artean ezik,
itzik ateraten.

Beste mendi-txoriak
zurtuta egozan,
itz-ontzi lerdin areik
orrela ikuskeran.

Euren uste apalez
arein joku barik
ezingo ziran bizi,
asko beintzat, pozik.

Joan yakezan oiuka,
joteko esanik;
mikak alan be muker,
lengoan ixillik.

Baiña etzaite izutu,
arrezkero gauzak
obeto darabillez
basarte-oianak.

Lan geiago lugiñak,
ainbeste jtz barik;
iñori min egiteka,
bakean bizirik.

Kalean bakeago,
obeto oldozturik:
on danak or dau iturri,
ez dago zalantzirik.

* * *

Irrati ta urritizkin
ba-da ots mindua...
Opor pizkat ez ete
letorke eratsua?